

## **78. FITXA BIZKAIA - Langabezian dauden pertsonentzako berrorientazioko eta beste lan bat bilatzeko neurriak abiarazteko dirulaguntzak, Behargintza Enplegu- eta Toki-Garapenerako Zentroen eta Toki Erakundeen bidez (3R Programa, Tokiko Enplegua 2025)**

**Nori zuzendua:** Behargintza Enplegu eta Tokiko Garapenerako Zentroak, udal-edo eskualde-izaerakoak, Bizkaiko Lurralde Historikokoak; Behargintza enplegu eta tokiko garapenerako zentroetako batean sartuta ez dauden Bizkaiko Lurralde Historikoko mankomunitateak edo udalak, baita haien mendeko edo haiei lotutako erakunde autonomoak, enpresa publikoak edo beste erakunde batzuk ere.

**Sarbide-esteka:** [Hasiera - Bizkaiko Foru Aldundiko Egoitza Elektronikoa](#)

**Erreferentziazko araudia:** [Bizkaiko Foru Aldundiaren 149/2024 FORU DEKRETUA, abenduaren 26koa, langabezian dauden pertsonentzako berrorientazioko eta beste lan bat bilatzeko neurriak, Behargintza Enplegu- eta Toki-Garapenerako Zentroen eta Toki Erakundeen bidez, \(3R Programa, Tokiko Enplegua 2025\) abiarazteko dirulaguntzen emakidaren oinarri arautzailek eta deialdia onesten dira.](#)

**Eremuak:** Enplegua

**Zenbatekoa:** 611.730 €

**Eskabideak aurkezteko epea:** 2025/02/03ko 9:00etatik, 2025/02/28ko 13:30era.

### **Laburpena**

Deialdi honen xedea da Behargintza enplegu eta tokiko garapenerako zentroentzako eta toki-erakundeentzako laguntzak arautzea, lanik gabe geratu diren pertsonen **lanera itzultzen** laguntzeko jarduketak egin ditzaten.

### **Diruz lagundu daitezkeen jarduerak**

Diruz lagundu daitezkeen egitatetzat hartuko da **birorientatzeko, aktibatze, gaitasun digitaletan prestatzeko eta birkokatze proiektuak** egitea, langabezian geratu diren Bizkaiko pertsonak lan-merkatuan birsartzeko.

- Dirulaguntzaren erakunde onuradunak berak **berrorientatuko** du lana, eta ezin da jarduera hori azpikontratatu. Xedea da informazioa ematea, egoera indibidualaren diagnostikoa egitea, aholkularitza eskaintzea, motibazioa sustatzea eta pertsoneri laguntza ematea laneratzeko prozesuan.
- **Lan-aktibazioa** zuzenean erakunde onuradunak egin beharko du, edo hirugarren pertsona batek, azpikontratazioa egiten bada. Prestakuntza-eskaintzari, lan-araudiari (lan-kontratuak, eskubideak eta betebeharrak, hitzarmen kolektiboa) eta lan-merkatuari buruzko informazioa emateko talde-saioak izango dira.
- **Birkokatzea** zuzenean erakunde onuradunak egin beharko du, edo hirugarren pertsona batek, azpikontratazioa egiten bada. Parte-hartzaileei laguntza emango zaie lan-merkatuan sartzeko, enpresekin topaketak eginez eta eskaintzak aurkitzeko planak garatuz. Lehen aukeraketa bat egingo da, lan-eskaintzei ondoen egokitzen zaizkien profilak identifikatzeko.
- **Gaitasun digital arloko prestakuntza**. Proiektuan parte hartzen duten pertsonen profila dela-eta beharrezkoa bada, erakundeak oinarritzko gaitasun digitalak lantzeko prestakuntza-ekintzak antolatu ahal izango ditu.

Aurkezten den proiektuak bi zerbitzuak izan beharko ditu nahitaez, **berrorientatzekoa** eta **beste lan bat bilatzekoa**.

## Gastuetarako aldi hautagarria

Diruz laguntzen diren proiektuak egiteko epea **2025eko apirilaren 2tik 2026ko apirilaren 1era** bitartean egin beharko dira.